



berpiztu

PROGRAMA PARA LA REACTIVACIÓN ECONÓMICA
Y EL EMPLEO DE EUSKADI (2020-2024)

Berpiztu 2020 programaren emaitzen eta
Berpiztu 2021 programaren
aurreikuspenaren txostena

ARTEZKARITZA BATZORDEA
2021eko martxoak 10

Euskadiko ekonomia eta
enplegua suspertzeko
Programa

www.irekia.euskadi.eus/berpiztu



*BEHAR DENA EGINGO DUGU AHALIK
ETA ENPLEGU GEHIEN
MANTENTZEKO ETA GALDUTAKO
ENPLEGU GUZTIA BERRESKURATZEKO*

(Lehendakaria. Mahai Sozioekonomikoa, 2020/05/27)





Aurkibidea

1. Testuingurua	7
2. 2020ko betearazpenaren balantze orokorra	17
3. 2021eko aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena	25
4. 2020-2021eko ikuspegi orokorra	31
ERANSKINAK	37
A.1. 2020ko aurrekontu-betearazpenaren xehetasunak eta emaitza nagusiak	39
A.2. 2021erako aurreikusitako ekintza nagusiak eta onartutako aurrekontuak	63







1.

Testuingurua





EAEko erakundeen artean partekatutako erantzun globala

Erakundearteko lankidetzeta eta koordinazioa inoiz baino garrantzitsuagoak dira une hauetan, COVID-19aren pandemiaren ondorioek eragin duten egoera konplexu eta zailari aurre egiteko. Izan ere, larrialdi-egoera eragin du osasungintzan, enpresetan eta pertsonengan; beraz, zalantzan jarri dira EAEko gizartearen ongizatea eta bizi-kalitatea.

Testuinguru horretan, **Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek «Enplegua eta Ekonomia Suspertzeko Akordio» bat egiteko oinarriak ezarri dituzte**, genero-ikuspegia txertatzen duena, erantzun orokor eta koordinatua eman ahal izateko elementu hauetan:



Aurre egin beharreko 3 trantsizio global handi

COVID-19ak eragindako krisia nazioartean megajoera jakin batzuk zabaldua daudela piztu da. Horiek, desagertetik urrun, geroz eta nabarmenagoak dira, eta erronka bat dira maila globalean nahiz gure errealitatean. Hala, **Euskadik megajoera horiek trantsizio teknologiko-digital, energetiko-ingurumeneko eta sanitario-sozialaren hirukotean** laburbiltzen ditu, herrien, negozioen, industrien, gizarteen eta pertsonen etorkizuna eraldatzeko gaitasuna dutela kontuan hartuta. Megajoera horiek, era berean, aukera ona izan daitezke enplegua sortzeko, eta, horretarako, prestakuntza egokia duten pertsonak eduki behar ditugu.



TRANSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA

Digitalizazioa.

Adimen artifiziala eta Big Data.

Teknologia, herritarren
zerbitzura.

Automatizazioa.

Zibersegurtasuna.

Bidezko ekonomia digital
eta lehiakorraren sustapena.



TRANSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKOA

Neutraltasun klimatikoa.

Energia-sistemaren
deskarbonizazioa.

Baliabideen eta energiaren
erabilera efizientea –ekonomia
zirkularra–

Mugikortasun jasangarria eta
adimenduna.

Bidezko trantsizio energetikoa.

From farm to fork.



TRANSICIÓN SOCIAL Y SANITARIA

Osasun-sistema eta arrisku
pandemikoak.

Demografia eta zahartze
osasuntsua.

Migrazioa.

Genero-berdintasuna.


Zainketa-eredu berriak.

Gizarte- eta lurralde-kohesioa.

Next Generation EU tresna europarrarekin bat datorren programa

«Next Generation EU» funts europarrak erreferentzia-esparru globala ezartzen du baliabide eta ahalegin publiko eta pribatuak Europa ekologiko, digital eta erresilientea eraikitzea bideratzeko, gizarte- eta lurralde-koheretza indartuko dituen hazkunde jasangarri eta integratzailearen bidez.

Euskadik ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren definiziorako oinarri gisa partekatzen eta bereganatzen ditu orientazio hauek, bere estrategiako ardatzen eta suspertze-tresna europarraren arteko bateratzea ezarriz. Horrenbestez, Ekonomia Suspertzeko Ardatzak Errekuperazio eta Erresilientzia Mekanismoaren filosofia eta funtsa txertatzen ditu, eta, bestalde, Enplegua Sortzeko Ardatzak gizarte- eta lurralde-koheretarako REACT-EU Programaren dimentsio handiak jorratzen ditu.



2030 Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorren programa bat

Euskadik bere gain hartu du garapen jasangarrirako helburuekin (GJH) bat egiteko konpromisoa, eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan txertatu du. Estrategia honekin zerikusi handiena duten garapen jasangarrirako helburuak hauek dira:

5. Genero-berdintasuna
6. Ur garbia eta saneamendua
7. Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
10. Desberdintasunen murrizketa
11. Hiri eta komunitate jasangarriak
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
13. Klimaren aldeko ekintza

Garapen jasangarrirako helburuetan, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren esparruan, 41 xede, 25 planifikazio-tresna, 10 ekimen legegile, 39 konpromiso, eta 21 adierazlez osatutako aginte-taula sartzen dira.

Gainera, 3 trantsizioekin oso lotuta dauden GJHak dira:

- Trantsizio teknologiko-digitala: GJH8 eta GJH9
- Trantsizio energetiko-ingurumenekoa: GJH7, GJH8, GJH11, GJH12 eta GJH13
- Trantsizio sozial eta sanitarioa: GJH8 eta GJH10



Enplegua eta ekonomia suspertzeko Programa, 10 konpromisorekin

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak helburu zehatzak planteatzen ditu, **Euskadiko enpleguarekin, susperraldi ekonomikoarekin eta erresilientziarekin lotuta, eta** Next Generation EU Funtzaren esparruan egindako **gomendio europarrekin bat**. Hauek dira, zehatz-mehatz, helburuak:

1 Inbertsio publikoarekiko konpromisoa: 13.250 milioi euroko ahalegin publikoa egitea, ekonomia suspertzeko eta enplegua dinamizatzeko.

2 Enpleguarekiko konpromisoa: Langabezia-tasa % 10etik behera kokatzea eta 130.000 enplegu dinamizatzea.

3 Gazteriarekiko konpromisoa: Lehen lan-esperientzia eskaintzea 25.000 gazte baino gehiagori, hezkuntza-mundutik lan-mundura igartzeko programetan, kontratazio-konpromisoa duen prestakuntzan, enplegurako prestakuntza dualean, gazte-ekintzailertzan eta nazioarteko espezializazioan.

4 Enpleguaren kalitatea hobetzeko konpromisoa: Gizonen eta emakumeen artean soldata-arrakala murrizteko, zaintza-eredu arduratsu berriak garatzeko, lana eta familia uztartzeko eta kontratazioan iruzurra jazartzeko programak garatzea.

5 I+G+Brekiko konpromisoa: Inbertsio publikoa urteko batez bestekoan % 6 areagotzeko lan egitea, Euskadi berrikuntza-gune izan dadin Europan eta trantsizio globalei aukera moduan egin dakien aurre.

6 Estrategia europarrarekiko konpromisoa: Europar Batasunak ezarritako eraldaketa-ardatz nagusiekin bat, Euskadi digitalagoa, Euskadi berdeagoa eta Euskadi inklusiboagoa eraikitzea.

7 Garapen jasangarrirako helburuekiko konpromisoa: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, erronka teknologikoekin eta erronka sozialekin zuzenean lotutako garapen jasangarrirako helburuei erantzuna ematea. Ingurumen-erronkek ere funtsezko zeregina dute energia berriztagarrietarako trantsizioa bizkortzeko, hiri-birgaitze energetikoa lortzeko energia-efizientziako irizpideekin eta mugikortasun jasangarria eskuratzeko, tren lehentasunezko ardatz hartuta.

8 Industriarekiko konpromisoa: Euskadiko ekonomia eraldatu eta berpizteko motortzat industria jotzen du. Industria aurreratua, digitalizatua eta nazioartekotua. Industria berria, inklusiboagoa eta partaideagoa.

9 Enplegu publikoarekiko konpromisoa: Enplegatu publikoen finkotasuna eta administrazioaren berrikuntza sustatzea, informazioaren teknologia berriak eta digitalizazioa sartuz, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzeko.


10 Zerbitzu publikoak hobetzeko konpromisoa: Osasun- eta hezkuntza-sistemen eraldaketa fisiko eta digitala. Osasuna, zahartzarora eta zainketak izango dira ekonomian eta enpleguan aukerak eskaintzen dituzten nitxo berriak.



Bi ardatz egituratzaile eta zeharkako eremu bat

Ekonomia eta enplegua suspertzeko BERPIZTU Programa 2020-2024 ekonomia eta enplegua suspertzeko funtsezko erronken gaineko erantzun integrala da, eta **bi ardatz bertikal nagusitan egituratzen da: «Ekonomia suspertzea» eta «Enplegua sortzea»**. Ardatz horiek 12 jardunbidetan hedatzen dira, eta horiek, era berean, ekonomia suspertu eta enplegua berreskuratzeko tresna eta neurri desberdinen erreferentzia-esparrua dira, estrategiaren aldiari zehar garatzeko. Halaber, **hirugarren ardatz edo zeharkako eremu bat** ere zehazten da, «**Enpleguaren kalitatea hobetzea**» (Programaren hamahirugarren politika).

Arestian aipatutako 12 politika eta 60 jarduera-ildoetan, programa eta neurri guztietan, genero-ikuspegia txertatuko da; horrela, emakumeen eta gizonen abiapuntu eta beharizan desberdinak hartuko dira kontuan.



I. ardatza: Ekonomia suspertzea

1. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
2. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala
3. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
4. Industria eta ETEak, Zerbitzu Aurreratuak, Sormen Industriak eta Nazioartekotzea
5. Elikagaigintza
6. Merkataritza, Turismoa eta Kultura

II. ardatza - Enplegua sortzea

1. Ekintzailletza. Enpresa berriak
2. Enplegurako prestakuntza
3. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak
4. Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza
5. Lan-eskaintza publikoa
6. Gazteentzako enplegua sustatzeko talka-plana

Zeharkako ardatza: Enpleguaren kalitatearen hobekuntza


- Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murriztea
- Prekaritatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)
- Prebentzioa eta lan-segurtasuna areagotzea
- Lan-ikuskaritza indartzea
- Erantzukidetasuna eta lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzea
- Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileagoetarantz eboluzionatzea
- Elkarrizketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea



13.250 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa guztira

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak **13.250 milioi euroko (*) aurrekontu-inbertsio balioetsia dauka 2020-2024 aldirako**. Zenbateko horretatik 9.550 milioi euroko aurrekontua bideratuko da ekonomia suspertu eta enplegua sortzeko bi ardatz nagusietara, eta 3.700 milioi euro gehitu dira enpresentzako eta pertsona autonomoentzako abalen kontzeptuan.


Aurrekontuan, 7.935 milioi horiek dira ekonomia suspertzeko ardatzerako eta 1.615 milioi euro enplegua sortzeko ardatzerako.



(*) Oharra: 2020-2024 aldirako XII. legegaldirako inbertsio-datuak dira, legegaldia hasi zenetik aurrerantzat hartuta. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da.

130.000 enplegu sortzea 2020-2024 aldian (XII. legealdia)

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak 1.615 milioi euroko aurrekontu balioetsia dauka 2020-2024 aldirako II. ardatzeko (Enplegua Sortzea) neurri eta programetarako. Kalkulatu da **EAEko ekonomian izango duen inpaktua 130.000 enplegu eragitea** izango dela.






2.

2020ko BERPIZTU betearazpenaren balantze orokorra





2020an BETEARAZITAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena (iraila-abendua, XII. legealdia)



2020ko aurrekontu-betearazpena (iraila-abendua, XII. legegaldia)

I. ARDATZA – EKONOMIA SUSPERTZEA

I. ardatzak (Ekonomia suspertzea) 1.015 M euroko aurrekontu-betearazpena lortu du (emaitzen aurrerapena), XII. legegaldiaren hasieratik aurrerako aldia aintzat hartuta (irailetik abendura), eta hasiera batean I. ardatzean zehaztutako politiketarako egindako aurrekontu-aurreikuspena gainditu da, Turismoaren eta Kulturaren Merkataritza eta Industriarekin lotutako politikan izan ezik.

TRAKZIO-POLITIKAK	Aurreikuspena 2020-2024 (M €) (*)	Aurreikuspena 2020 (M €) Irailetik abendura	XII. legegaldiko betearazpena (iraila- abendua) 2020 (M €) (**)
1. EKONOMIA- ETA GIZARTE-AZPIEGITURA PUBLIKO BERRIAK	2.976 M €	275 M €	341 M €
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M €	246 M €	264 M €
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M €	36 M €	39 M €
4. INDUSTRIA ETA ETE-AK, ZERBITZU AURRERATUAK, SORMEN INDUSTRIAK ETA NAZIOARTEKOTZEA	1.164 M €	134 M €	236 M €
5. ELIKAGAIGINTZA	613 M €	66 M €	110 M €
6. MERKATARITZA ETA TURISMO- ETA KULTURA-INDUSTRIA	313 M €	34 M €	25 M €
AURREKONTUAK, GUZTIRA	7.935 M €	791 M €	1.015 M €

(*) 1. oharra: 2020-2024 aldiko XII. legegaldirako kalkulaturako aurreikusitako aurrekontu-datuak (2020ko irailetik abendurako zatia barne).

(**) 2. oharra: 2020ko betearazpen-zifrak, XII. legegaldiaren hasieratik, bat datoz 2020ko irailetik abendura bitarteko gastu-konpromisoetatik lortutako aurrekontu-exekuzioaren estimazioarekin. Datuok behin-behineko aurrerapena dira, eta berrikusi egin daitezke behin betiko betearazpenaren datuak izatean.



II. ardatzak (Enplegua sortzea) 168 milioi euroko aurrekontu-betearazpena lortu du (emaitzen aurrerapena), eta kalkulatu da 18.893 enplegurentzako pizgarriak eman dituela (emaitzen aurrerapena), XII. legealdiaren hasieratik aurrerako aldia aintzat hartuta (irailetik abendura). Enpleguan izandako inpaktuaren emaitzak aurreikusitakoak baino handiagoak dira, nahiz eta kontuan izan behar den, zuhurtzia-irizpideagatik, 2020rako hasierako kalkuluan enpleguan inpaktu txikiagoa izatea aurreikusi zela.

TRAKZIO-POLITIKAK	2020ko betearazpena, urte osoa		2020ko aurreikuspena irailetik abendura		XII. legealdiko betearazpena, 2020ko iraila-abendua. % 61eko egozpena urte osoaren arabera (*)	
	Inbertsioak (M €)	Enpleguak	Inbertsioak (M €)	Enpleguak	Inbertsioak (M €)	Enpleguak
7. EKINTZAILAZA. ENPRESA BERRIAK	25 M €	2.766	14 M €	780	15 M €	1.674
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	51 M €	6.556	37 M €	3.044	31 M €	3.967
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	100 M €	8.214	63 M €	1.888	60 M €	4.970
10. RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZAREN BIRGAIKUNTZA	83 M €	5.330	44 M €	1.084	51 M €	3.225
11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK	-	2.538	*	2.065	-	2.538
12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	18 M €	4.163	18 M €	1.867	11 M €	2.519
ENPLEGU-PROGRAMA, GUZTIRA	277 M €	29.567	176 M €	10.727	168 M €	18.893

(*) 1. oharra: II. ardatzaren (Enplegua sortzea) aurrekontu-betearazpenaren egozpena eta XII. legealdiaren hasieratik hona enpleguan izandako inpaktua (irailetik abendura) kalkulatzeko, I. ardatzaren (Ekonomia suspertzea) egozpen maila bera aplikatu da (% 61 2020ko aurrekontuan). Aurrekontu-betearazpenaren eta enpleguaren zifrak aurrerapenak edo behin-behinekoak dira, eta berrikusi egin daitezke behin betiko datuak izatean. Enplegu eskaintza publikoei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurilaritzaren I. Kapitulu Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako. 2020ko irailetik abendura bitarteko aldirako aurreikuspenaren eta benetako gauzatzearen arteko aldeak honako honetan dautza: inbertsioari eta enpleguan izan zezakeen eraginari buruzko estimazio zuhurra egin zen, COVID eragin negatiboa sartzeko.

2020ko bestelako emaitzak (iraila-abendua, XII. legealdia)

Enpleguak sustatzeaz gain, kalkulatu da Berpiztu Programak **beste inpaktu eta emaitza batzuk** ere izan dituela **jarduera ekonomikoan**, XII. legealdiaren hasieratik aurrerako aldia aintzat hartuta (irailetik abendura). Horiei esker, **660 enpresa berri sortu dira** (mikroETEak eta autonomo berriak barne), **ikerketa, garapena eta berrikuntzako 97 proiektu** bultzatu eta **finantzatu dira** eta **1.330 industria-enpresari** lagundu zaie **modernizatzen eta hedatzen**.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako emaitzak, 2020-2024	XII. legealdiko emaitzak (2020ko iraila-abendua) (*)
SORTU DIREN ENPRESA BERRIAK	6.000	660
Mikroekintzailletza eta autonomo berriak	5.000	545
Enpresa berri berritzaileak	1.000	115
EUROPAKO I+G+bko PROIEKTUAK	600	97
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (**)	600	97
INDUSTRIAKO ETE LAGUNDUAK	10.000	1.330
Nazioartekotzeko	1.500	170
Modernizatzeke eta hedatzeke	1.500	214
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	238
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	231
Produktu berriak garatzeko	4.000	477

(*) 1. oharra: XII. legealdiaren hasieratik aurrerako jarduera ekonomikoko emaitzen egozpena kalkulatzeko (irailetik abendura), I. ardatzaren (Ekonomia suspertzea) jarduera ekonomikoko egozpen maila bera aplikatu da (% 61 2020ko aurrekontuan). Aurrekontuaren zenbatespena 2020. urterako gastu-konpromisoetatik abiatuta lortzen da.

(**) Europako 600 I+G+b proiekturen hasierako aurreikuspenak eguneratu dira, "Horizonte Europa" Europako ikerketa-programa berria abian jartzeko atzerapena eta bertan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta.



Ekonomia eta enplegua suspertzeko ardatzek berarekin dakarte inplizituki galdutako enplegua berreskuratzeko, dagoen enplegua kontsolidatzeko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko konpromisoa; hori Berpiztu Programa osoaren zeharkako ardatzean dago islatuta. Zeharkako ardatz horretan gauzatutako ekintza nagusiak ildo hauetan islatzen dira:

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

COVID-19ren krisiak izugarri aldatu ditu agenda eta lehentasun politiko eta sozialak, eta politika publiko guztiak birbideratu behar dira lehentasun horiei erantzuteko. Gizarte- eta ekonomia-inpaktu handiak dituen mundu mailako osasun-krisi honetan, ezinbestekoa da genero-ikuspegia kontuan hartzea, epe labur, ertain eta luzean hartuko diren neurriak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen, bai emakumeentzat, bai gizonentzat, eta inor ez dadin atzean utzi, Garapen Iraunkorrari buruzko Euskadi Basque Country 2030 Agendan jasotako konpromisoarekin bat etorriz. Ildo horretan, elkarrizketa sozialeko mahaiko genero-berdintasunerako taldearen esparruan, hartu beharreko neurrietan genero-ikuspegia txertatzeko deia egitea erabaki da.

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murriztea

Elkarrizketa Sozialaren Mahaik 2020rako lan-plan bat zehaztu du, eta, besteak beste, enpresetan berdintasun-planak boluntarioki ezartzea eta berdintasun-batzordeetako kideak espezifikoki trebatzea nabarmentzen dira. Halaber, berdintasuneko unitate espezifikoak garatzen aurrera egin da, Lan Ikuskaritzan sortuak, lurralde historiko bakoitzeko bana, Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko Estrategia eta Plan Operatiboa betez (2018). Plan horrek, halaber, eragina izan du Laneko Iruzurren Postontziaren erabilgarritasunean. 2020an handitu egin ziren enpresentzako laguntzak, berdintasun-diagnostikoak eta -planak egiteko. (2021ean bikoiztu egin dira, eta 400.000 izatera igaro dira)

Prekaritatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)

Lan Ikuskaritzaren zeregina funtsezkoa izan da, gauzatutako ikuskaritza-lanak indartu eta antzemandako kontratazio-iruzurrekin lotutako txostenak aurkeztu baititu; lan horiek emaitza garrantzitsuak lortu dituzte lege-iruzurrean sinatutako kontratuak erregularizatzeari dagokionez. Bestalde, Laneko Iruzurren Postontziak martxan jarraitu du; tresna horrek herritarrei aukera ematen die, lan-araudia, Gizarte Segurantzako araudia edo laneko arriskuen prebentzioko araudiaren urraketa izan daitekeen zerbaiten berri izanez gero, horren berri emateko laneko agintariei, era anonimoan. Haren xedeko erabiltzaile nagusiak sindikatu-ordezkaritza txikiko sektoreetako langileak dira, edo enplegatzaileen presio-ahalmena handia den sektoreetakoak. Aplikazioak soldata-arrakalaren aurka borrokatzera bideratutako funtzionaltasun bat dauka.

Prebentzioa eta lan-segurtasuna areagotzea

Prebentzioarekin eta lan-segurtasunarekin lotuta, azpimarratu behar da jarduera-gida bat egin dela pandemia-egoeran EAEko lan-zentroetan modu seguruan jarduera abian jartzeko. Lan eta Justizia Saila izan da gida horren diseinuaren gidari, eta gizarte-eragileek ere parte hartu dute (patronala eta sindikatuak). Gidaren helburua da langileen osasuna bermatzea, baita lan-zentroak berriro irekitzeko prozesuetan laguntzea ere. Halaber, gogorarazten du Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen, Lan Agintaritzaren eta Lan Ikuskaritzaren zerbitzuak erabilgarri daudela sor daitezkeen desadostasunak azkar ebazteko. Gida argitaratu ondoren, Osalanek ezohiko Kontseilu Orokor bat egin du telematikoki, eta bertan jarri dira ikusgai erakundeak COVID-19ari aurre egiteko emandako gomendioak.

Lan-ikuskaritza indartzea

Lan Ikuskaritza 2019an indartu zen berdintasuneko 3 unitate espezifikorekin. 2020an, lan-iruzurraren aurka borrokatzeko eginkizun espezifikoak egiten jarraitu du. Ikuskaritza-lana indartu da, eta horren emaitzek (txostenean jasoak) argi utzi dute lan-iruzurraren aurka etengabe borrokatzen dela, eta kontratu kopuru handi bat aldatzea lortu da. 2020an, 10.000 kontratutik gora berrikusi dira; horri esker, horien heren bat eraldatu da, dela lanaldi partzialetik lanaldi osora, dela behin-behinekoak izatetik mugagabe izatera.

Erantzukidetasuna eta lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzea.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren aurreikuspenak aplikatzen jarraitu da. 2020an pandemiak sortutako zailtasunak ikusita, egungo kontziliazio-programak indartu dira, hasiera batean 37 milioi euroko zuzkidurarekin, eta 52 milioi eurora arte zabaltzeko aukerarekin, aurkeztutako eskaeren arabera. Halaber, beste programa batzuk indartu dira, hala nola Gurasotasuna gurasotasun positiboko programa, besteak beste eremu sozialean, hezkuntzakoan, sanitarioan eta judizialean familiekin lanean diharduten profesionaleri zuzendua.

Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileagoetarantz eboluzionatzea

Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileagoetara aldatzeko eman diren aurrerapauso nagusiak, besteak beste, hedatzeko, gogoeta egiteko eta ikusgai jartzeko ekintzak garatzea izan da, hala nola Parte-hartzean oinarritutako enpresa-eredu inklusiboari buruzko jardunaldia, ASLE, Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarte eta Europar Batasunarekin batera antolatua. Halaber, lankidetzeta eta ekonomia sozialeko ereduak bultzatzen jarraitu da, hainbat ildo babestuz: ekonomia sozialeko enpresetan laguntza teknikoa ematea; ekintzailatza sustatzea; planifikatutako lurralde-sustapena eta ekonomia sozialeko enpresak kontsolidatzea; enpresen arteko lankidetzeta sustatzea; ekonomia sozialean trebatzeko ekintzak; bazkideak ekonomia sozialeko enpresetan sartzea; ekonomia sozialeko erakundeak eta elkarte-egiturak kontsolidatzea; eta enpresetan Enpresaren Gizarte Erantzukizuna hedatzea eta ezartzea.

Elkarrizketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea.

Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak eratu diren lantaldeek hartutako erabakiak eta 2020rako Lan Plana onartu ditu berdintasunaren, enpleguaren, lanbide-heziketaren, lan-osasunaren eta industriaren arloetan. Era berean, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak bilera espezifikoak izan ditu lan-jardueraren berrabiarazte-prozesuaren garapena aztertzeko, baita lan-zentroetan modu seguruan jarduera abian jartzeari buruzko jarduera-gida ezartzeko ere.




3.

2021eko BERPIZTU aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena





2021eko AURREIKUSITAKO inbertsio eta emaitzen laburpena



2021eko aurrekontu-aurreikuspena

I. ardatzak (Ekonomia suspertzea) 2021erako 1.740 milioi euroko aurrekontua izango duela aurreikusten da, beheko koadroan jasotako politiken xehetasunekin.

TRAKZIO-POLITIKAK	Aurreikuspena 2020-2024 (M €) (*)	2021eko aurrekontuak (M €) (**)
1. EKONOMIA- ETA GIZARTE-AZPIEGITURA PUBLIKO BERRIAK	2.976 M €	637 M €
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M €	536 M €
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M €	99 M €
4. INDUSTRIA ETA ETE-AK, ZERBITZU AURRERATUAK, SORMEN INDUSTRIAK ETA NAZIOARTEKOTZEA	1.164 M €	252 M €
5. ELIKAGAIGINTZA	613 M €	144 M €
6. MERKATARITZA ETA TURISMO- ETA KULTURA-INDUSTRIA	313 M €	72 M €
AURREKONTUAK, GUZTIRA	7.935 M €	1.740 M €

(*) 1. oharra: 2020-2024 aldian XII. legealdirako kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020ko irailaren 1etik aurrera.

(**) 2. oharra: 2021eko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021ko otsailaren 11n onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

2021eko aurrekontuaren eta enplegu-inpaktuaren aurreikuspena

II. ARDATZA - ENPLEGUA SORTZEA

II. ardatzak (Enplegua sortzea) 2021erako 345 milioi euroko aurrekontua izango duela aurreikusten da; hortaz, kalkulatzen da 22.833 enplegu sustatzen lagunduko duela, beheko koadroan jasotako politiken xehetasunekin.

TRAKZIO-POLITIKAK	2020-2024 aurreikuspena		2021eko aurrekontuak (**)	
	Inbertsioak (M €)	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILETZA. ENPRESA BERRIAK	128 M €	10.790	27 M €	1.820
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	342 M €	42.100	75 M €	7.102
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577 M €	26.110	126 M €	4.404
10. RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZAREN BIRGAIKUNTZA	406 M €	15.000	87 M €	2.530
11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK (*)	*	10.720	*	2.625
12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162 M €	25.800	30 M €	4.352
ENPLEGU-PROGRAMA, GUZTIRA	1.615 M €	130.520	345 M €	22.833

(*) 1. oharra: Lan-eskaintza publikoei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapituluaren (Langileak) sartuta daudelako.

(**) 2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2021eko aurrekontu-datuak gobernuaren 2021eko aurrekontuko «210 txostena - Enplegu Plana» txostenekoak dira; horri gehitu egin zaio osasun-arloko Renove programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua. 2021ean sustatutako enpleguaren kalkulua Berpiztu programan egindako aurreikuspenekoa da. Hori bera aplikatzen da enpresa berrien, proiektu europarren eta lagundutako ETE-en aurreikuspen-zifrak kalkulatzeko. Aurrekontu-aurreikuspenak bat datoz 2021erako onartutako aurrekontuarekin. Enpleguan izango duen eraginari buruzko aurreikuspenei dagokienez, eutsi egiten zaie 2020ko azaroaren 3an onartutako Berpiztu Planear hasieran jasotakoei.



2021eko beste emaitza batzuen aurreikuspena

Enpleguak sustatzeaz gain, kalkulatu da Berpiztu Programak **beste inpaktu batzuk** ere izango dituela **jarduera ekonomikoan**. Horiei esker, **1.085 enpresa berri sortuko dira** (mikroETEak eta autonomo berriak barne), **ikerketa, garapena eta berrikuntzako 50 proiektu** bultzatu eta finantzatuko dira eta **2.200 industria-enpresari** lagunduko zaie **modernizatzen eta hedatzen**.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako emaitzak, 2020-2024	2021eko aurreikusitako BERPIZTU emaitzak
SORTU DIREN ENPRESA BERRIAK	6.000	1.085
Mikroekintzailtza eta autonomo berriak	5.000	910
Enpresa berri berritzaileak	1.000	175
EUROPAKO I+Gko PROIEKTUAK	600	50
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (*)	600	50
INDUSTRIAKO ETE LAGUNDUAK	10.000	2.200
Nazioartekotzeko	1.500	350
Modernizatzeke eta hedatzeke	1.500	350
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	250
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	450
Produktu berriak garatzeko	4.000	800

Oharra: Berpiztu Programaren aurreikuspenak

(*) Europako 600 I+G+b proiekturen hasierako aurreikuspenak eguneratu dira, "Horizonte Europa" Europako ikerketa-programa berria abian jartzeko atzerapena eta bertan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta.





4.

2020-2021eko BERPIZTU ikuspegi orokorra





2020-2021erako aurrekontu metatuaren aurrerapena

Jarraian, 2020an betearazitako aurrekontuaren eta 2021erako aurreikusitako aurrekontuaren aurrerapen-ikuspegi orokor metatua adierazten da I. ardatzerako (Ekonomia suspertzea).

TRAKZIO-POLITIKAK	Aurreikuspena 2020-2024 (M €)	XII. legealdiko betearazpena (iraila- abendua) 2020 (M €) (*)	2021erako onartutako aurrekontuak (M €) (**)	2020-2021erako aurrerapen orokor metatua (M €)
1. EKONOMIA- ETA GIZARTE-AZPIEGITURA PUBLIKO BERRIAK	2.976 M €	341 M €	637 M €	978 M €
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M €	264 M €	536 M €	800 M €
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M €	39 M €	99 M €	138 M €
4. INDUSTRIA ETA ETE-AK, ZERBITZU AURRERATUAK, SORMEN INDUSTRIAK ETA NAZIOARTEKOTZEA	1.164 M €	236 M €	252 M €	488 M €
5. ELIKAGAIGINTZA	613 M €	110 M €	144 M €	254 M €
6. MERKATARITZA ETA TURISMO- ETA KULTURA-INDUSTRIA	313 M €	25 M €	72 M €	97 M €
AURREKONTUAK, GUZTIRA	7.935 M €	1.015 M €	1.740 M €	2.755 M €

(*) 1. oharra: 2020ko betearazpen-zifrak XII. legealdiaren hasieratik, bat datoz 2020ko irailetik abendura bitarteko gastu-konpromisoekin. Datu horiek behin-behineko aurrerapena dira eta berrikusi egin daitezke behin betiko betearazpenaren datuak izatean.

(**) 2. oharra: 2021eko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021erako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

2020-2021erako aurrekontu metatuaren aurrerapena eta enpleguaren sustapena

Jarraian, 2020an betearazitako aurrekontuaren eta 2021erako aurreikusitako aurrekontuaren aurrerapen orokor metatua eta II. ardatzerako (Enplegua sortzea) enplegua suspertzeko egindako ekarpena adierazten dira.

TRAKZIO-POLITIKAK	2020-2024 aurreikuspena (*)		XII. legealdiko betearazpena (iraila-abendua) 2020 (**)		2021eko aurreikuspena (***)		2020-2021erako aurrerapen orokor metatua	
	Inbertsioak (M €)	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILTZEA. ENPRESA BERRIAK	128 M €	10.790	15 M €	1.674	27 M €	1.820	42 M €	3.494
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	342 M €	42.100	31 M €	3.967	75 M €	7.102	106 M €	11.069
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577 M €	26.110	60 M €	4.970	126 M €	4.404	186 M €	9.374
10. RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZAREN BIRGAIKUNTZA	406 M €	15.000	51 M €	3.225	87 M €	2.530	138 M €	5.755
11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK	*	10.720	*	2.538	*	2.625	*	5.163
12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162 M €	25.800	11 M €	2.519	30 M €	4.352	41 M €	6.871
ENPLEGU-PROGRAMA, GUZTIRA	1.615 M €	130.520	168 M €	18.893	345 M €	22.833	513 M €	41.726

(*) 1. oharra: 2020-2024 aldian XII. legealdirako kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, legealdia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (2020ko iraila). Enplegu eskaintza publikoei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapituluko Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

(**) 2. oharra: 2020ko II. ardatzaren (Enplegua sortzea) aurrekontu-betearazpena eta XII. legealdirako enpleguan izango duen inpaktua legealdiaren hasieratik egozten da. Irailtik abendura dagokion exekuzioa I. ardatzaren (Ekonomia suspertzea) aurrekontu-betearazpenaren egozpen maila bera aplikatuz kalkulatu da (% 61 2020ko aurrekontuan). Aurrekontu-betearazpenaren eta enpleguaren zifrak aurrerapen behin-behinekoak dira, eta berrikusi egin daitezke behin betiko datuak izatean.

(***) 3. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2021eko aurrekontu-datuak Gobernuko aurrekontuetako «210 txostena - Enplegu Plana» txostenekoak dira. Txosten horri gehitu egin zaio osasun-arloko Renove programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua. 2021ean sustatutako enpleguaren kalkulua Berpiztu programan egindako aurreikuspenekoa da. Hori bera aplikatzen da enpresa berrien, proiektu europarren eta lagundutako ETE-en aurreikuspen-zifrak kalkulatzeko.



2020-2021eko beste emaitza metatu batzuen aurrerapena

Jarraian, jarduera ekonomikoko beste inpaktu batzuen ikuspegi metatu orokorra jasotzen da (2020-2021). Horretarako, kontuan hartu dira enpresa berriak sortzea (mikroETEak eta autonomo berriak barne), ikerketa, garapena eta berrikuntzako proiektuak bultzatu eta finantzatzea eta industria-enpresei modernizatzen eta hedatzen laguntzea.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako emaitzak, 2020-2024	XII. legealdiko emaitzak (2020ko iraila-abendua) (*)	2021eko aurreikusitako BERPIZTU emaitzak (**)	Emaitza metatuak 2020-2021
SORTU DIREN ENPRESA BERRIAK	6.000	660	1.085	1.745
Mikroekintzailtza eta autonomo berriak	5.000	545	910	1.455
Enpresa berri berritzaileak	1.000	115	175	290
EUROPAKO I+G+bko PROIEKTUAK	600	97	50	147
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (***)	600	97	50	147
INDUSTRIAKO ETE LAGUNDUAK	10.000	1.330	2.200	3.530
Nazioartekotzeko	1.500	170	350	520
Modernizatzeko eta hedatzeko	1.500	214	350	564
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	238	250	488
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	231	450	681
Produktu berriak garatzeko	4.000	477	800	1.277

(*) 1. oharra: XII. legealdiaren hasieratik aurrerako jarduera ekonomikoko emaitzen egozpena kalkulatzeko (irailetik abendura), I. ardatzaren (Ekonomia suspertzea) jarduera ekonomikoko egozpen maila bera aplikatu da (% 61 2020ko aurrekontuan). Abiapuntuko datuak 2020ko emaitzen memorietatik hartu dira.

(**) 2. oharra: 2021erako kalkulaturako emaitzak Berpiztu Programaren aurreikuspenetakoak dira.

(***) Europako 600 I+G+b proiekturen hasierako aurreikuspenak eguneratu dira, "Horizonte Europa" Europako ikerketa-programa berria abian jartzeko atzerapena eta bertan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta.







Eranskinak








1. eranskina

2020ko aurrekontu-
betearazpenaren
xehetasunak eta emaitza
nagusiak







I. ardatza – Ekonomia suspertzea

Berpiztu 2020 – Garatutako ekintza nagusiak
eta aurrekontu-betearazpenaren xehetasunak





Berpiztu 2020 Garatutako ekintza nagusiak

Aurreko orrietan aipatutako moduan, 2020ko ekitaldia XI. legealdiaren eta XII. legealdiaren arteko trantsizio-ekitaldi bat da, azken hori 2020ko irailean hasia denez. Berpiztu Programaren lehenengo ekitaldi osoa 2021 honetan betearaziko da.

Hori dela eta, Berpiztu programaren 2020ko aurrekontu-betearazpenaren eta emaitzen inpaktuaren datuak bereizteko (hau da, 2020ko irailetik abendura), I. ardatzerako (Ekonomia suspertzea) irizpide orokor gisa egozpen-ehuneko bat baliatu da 2020rako gastu-konpromisoetatik lortutako informazioaren arabera, eta gastu betearazi gehiena urteko bigarren zatian metatzeko hipotesiarekin bat, lehen seihilekoan izandako konfinamenduaren ondoriozko zuhurtziagatik. Horrenbestez, 2020ko Berpiztu Programarako kalkulaturako egozpena 2020ko urteko guztizkoaren % 61 da.

Gogoeta horiek I. ardatzaren (Ekonomia suspertzea) 6 politiketarako 2020an garatutako ekintzetara eramanda, zaila izango litzateke kalkulatzeko ekintzen zer zati egin diren irailetik abendura (XII. legealdia). Hori dela eta, jarduera-ildo nagusien laburpen orokor bat aurkezten da, eta 2021erako horien ikuspegi osoagoa ere jasotzen da (agiri honen 2. eranskinean adierazten den moduan). 2020an gauzatutako ekintzen ikuspegi orokorra eskaintzen dute sail bakoitzaren emaitzen memoriek; kontuan izan behar da memoria horietan jasotako informazioa urterokoa dela.

1. politika. Inbertsioa bultzatzea azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan

Azpiegitura publikoak indartzea, hobetzea eta kontsolidatzea, inbertsioak eginez horiek modernizatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko. Horretarako, lehenetsia emango zaie inbertsio jasangarrienei eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloan errentagarritasun handiena dutenei. Jarduketa horien artean, besteak beste, proiektuak eta obrak egin dira tren-garraioko azpiegituretan (EAEko Y-a, Loiolako aldageltokia, Durango-Bilbo konexioa, Pasaia-Irun *topoa*...) eta portu-garraiokoetan (Mutriku, Hondarribia eta Bermeoko portuetako kai-muturrak indartzeko lanak, besteak beste), baita azpiegitura hidraulikoetan ere (saneamenduaren, horniduraren eta uren arazketaren arloko hobekuntzak).

Halaber, inbertsioak egin dira gizarteko, herritarren zerbitzuetako eta hiri-berronertzeko ekipamenduetan (besteak beste, haur, lehen eta bigarren hezkuntzako zentro, lanbide-heziketako zentro eta unibertsitate-hezkuntzako zentroetan), osasun-zentro eta ospitaletan, kultura-ekipamenduetan eta ondare historikoarekin lotuetan. Gainera, dagoeneko eraikitako etxebizitzaren parkea birgaitu da alokairuko etxebizitza berriekin.

2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala sustatzea

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2030 Plan berria egiteko prozesuan aurrera jarraitu da, Euskadiko Espezializazio Adimentsuko Estrategiarekin (RIS3) bat etorrita, eta arreta berezia jarri da 3 lehenetsi estrategikotan (Industria adimentsua, energia garbiak eta osasun pertsonalizatua) eta zeharkako traxzio-ekimenetan (mugikortasun elektrikoa, zahartze osasuntsua eta ekonomia zirkularra), ekoizpen-sarearen eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren sistemaren gaitasunak oinarri hartuta.

Ikerketa teknologiko eta industrialaren bultzatzeko ekintzak garatzea eta enpresako I+G proiektuak eta ZTBESko agenteen proiektuak garatzen laguntzea; osasunaren eta elikaduraren arloko ikerketa-programak sendotzea; ikerketa zientifikoko eta unibertsitateko ikerketako jarduerak bultzatzea, talentu zientifikoko eta teknologikoko erakarriz eta trebatuz; eta berrikuntza irekia sustatzea, enpresa-kudeaketa aurreratuko eta eraldaketa digitala babesteko programen bitartez.

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa sustatzea

Arlo horretako 3 estrategia gakoak zabaltzen aurrera egitea: Euskadiko Energia Estrategia, Ingurumen Estrategia eta Ekonomia Zirkularraren Estrategia. Horrela, honako hauek jarri dira abian: sektore ekonomiko eta sozial desberdinetako eraikinen energia-efizientzia hobetzeko inbertsioak; teknologia berriak darabiltzaten energia berriztagarriak sustatzeko inbertsioak; eta ekonomia zirkularra eta baliabideen erabilera efizientea sustatzeko inbertsioak.

Bestalde, parke mugikorrean energia alternatiboen erabilera eta garraio jasangarri eta adimentsua sustatzeko ekintzak gauzatu dira; eta ingurumena eta ondare naturala babesteko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko proiektuak garatu dira (etorkizuneko 2021-2025 Klima Aldaketaren Estrategiaren Ekintza Planaren esparruan).

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuek, sormen-industriak eta nazioartekotzea sustatzea

Industria Garapeneko Plan Estrategiko berria zehazten eta hedatzen aurrera egitea, arreta jarrita EAEko industria-ekosistemetan, trantsizio ekologiko eta digitala ikuspegi horretan oinarritu dadin; eta 2025eko Enpresak Nazioartekotzeko Plan berria zehazten eta hedatzen ere aurrera egitea.

Industria-enpresak «industria 4.0» motakoak izateko ekintzak eta programak gauzatu dira. Horretarako, inbertsioak indartu dira automatizazio eta digitalizazioan, eta babes berezia eman zaie enpresa txiki eta ertainei nahiz zailtasun gehien dituzten sektoreei, bai eta hazkunde-gaitasuna duten sektoreei eta sektore gakoei ere, hala nola zerbitzu aurreratuei eta sormen-industriari. Halaber, enpresen kapital-egiturak bultzatzeko eta tokiko balio-kateak indartzeko programak sustatu dira, eta industria-gaitasun estrategiko berriak garatzearen eta sortzearen alde egin da. Horretarako, sektore estrategikoen *reshoring*-a indartu da, enpresa-lehiakortasuna hobetzeko.

Nazioartekotzearen testuinguruan, Euskadiko Nazioartekotze Agentziaren jardura indartu da, eta Euskadi Basque Country marka finkatzeko eta Euskadik nazioarteko proiektuetan parte hartzea bultzatzeko beste ekimen batzuk ere sustatu dira.

5. politika. Elikagaigintza aktibatzea

Arlo horretako 3 plan handiak ezartzen aurrera egitea: Nekazaritza Politika Bateratuaren Erakundearteko Plan Estrategikoa; Euskadiko Gastronomía eta Elikaduraren Plan Estrategikoa eta Europako Itsas eta Arrantza Funtsearen Programa Operatiboa.

Gaitasun berriak garatzeko edo nazioartekotzeko programa berria zabaltzea, pandemiaren ondorioak gainditzeko eta euskal enpresen epe ertain-luzeko bideragarritasuna bermatu eta indartuko duen plana egituratzeko. Sektore estrategikoen reshoring-a bultzatzea, ahalmen berriak garatzeko eta berregituratu edo berrantolatzeko kontzentrazio- edo finkatze-eragiketen bidez.

Enpresen lehiakortasun-estrategiak sendotzen jarraitzea, haien kapital-egituren egoera sendoari lagunduz, Finkatuz funtsa eta Arrisku Kapitala bezalako tresnen bidez, eta tokiko balio-kateak indartzen dituzten trakzio-proiektuetan inbertitzen laguntzea.

ETEn DIGITALIZAZIOA ETA BERRIKUNTZA BULTZATZEA

ETEn berrikuntza teknologikoan eta ez-teknologikoan oinarritutako irtenbideak aplikatzen laguntzea. Hazinnova programa.

KRISIAN DAUDEN SEKTOREEI LAGUNTZEA ETA AZPIEGITURAK INDARTZEA

Zailtasunak dituzten edo berregituratzeko beharra duten enpresei laguntzea, trantsizio teknologiko-digitalari eta energetiko-ingurumenekoari aurre egiten laguntzeko, Indartu, Bideratu Berria eta Bideratu Covid-19 programen bidez.

Laguntza-azpiegiturak indartzea, hala nola Industria eta Teknologia Parkeen Sarea, eta clusterren politika indartzea, balio-kateen azterketa eta Covid-19ko krisiak horietan duen eragina kontuan hartuta.

ZERBITZU AURRERATUAK ETA INDUSTRIA SORTZAILEAK

Industrian zerbitzu aurreratuak (ingeniaritzak, teknologia, marketina, finantza-zerbitzuak) sartzea erraztea, lehiakortasuna hobetzeko tresna gisa, eta industria sortzaileen balio erantsia sustatzea (bideojokoak, eduki digitalak, diseinua, etab.).

HEALTH-CLUSTERRA INDARTZEA

Osasun-sektorearen eta sektore teknologiko-enpresarialaren arteko lankidetzaren sustatzea, Euskadiko BPGri eta enpleguari lagunduko dion osasun-sektore indartsua sortzeko.



4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEKO PLANA 2025

NAZUARTEKOTZEA SUSTATZEKO ZERBITZUAK INDARTZEA

Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren jardura indartzea, batetik, bere zerbitzuak hobetzeko (balio erantsiko zerbitzuen katalogo berria abian jartzea eta zerbitzuak emateko prozesuak estandarizatzea) eta, bestetik, kanpoko sareari laguntzeko (kanpoan bulego berriak irekitzea).

Bestalde, adimen lehiakorraren unitatea hobetzeko ekintzak, nazioarteko zaintza- eta alerta-sistema bat sortuz, erreferentziatzeko nazioarteko erakundeekin aliantza estrategikoak eginez (adimen sektorialeko sistema; adimen dashboarda eta euskal enpresentzako aukeren atari berria).

BasqueTrade & Investmenten eta merkataritza-ganberen arteko lankidetzak bultzatzea, ETEak nazioartekotzen laguntzeko.

BASQUE COUNTRY MARKA SENDOTZEA

Euskadi Basque Country markaren ikusgarritasuna eta erabilera bultzatzea nazioarteko jardunaldi eta misioetan eta argitalpen espezializatuetan, atzerrian dauden euskal enpresen aintzatespena eta ospea irabazteko tresna gisa, eta nazioartean duten proiektzioa hobetzeko.

TALENTUA GARATZEA ETA ERAKARTZEA

Nazioartekotze-beken Beint eta Global Training programak berriz diseinatzea; “Alumni Beint” programa abian jartzea; eta kanpoko sarearen gaikuntza hobetzea, euskal talentua atzerrian prestatzeko eta nazioarteko talentua erakartzeko lidergoa lortzeko.

KANPOKO INBERTSIO PUBLIKOKO PROIEKTU PILOTUAK

Alde anitzeko erakundeek euskal partaidetza bultzatzea inbertsio publikoko nazioarteko proiektuetan. Gaur egungo krisiaren ondorioz, nazioarteko inbertsio publikoak izango duen igoera aprobetxatzea, besteak beste, osasun-azpiegituretan, energia-eraginkortasunean, hiri-mugikortasunean eta mugikortasun iraunkorrean, hiri adimendunetan eta saneamenduan.

NAZUARTEKO BATEGITEAK ETA ESKURATZEA BULTZATZEA

Euskal enpresa-taldeek enpresa-hazkunde- eta finkatze-prozesuei laguntzea, nazioarteko bategiteen eta eskuraketen bidez, merkatu-adimeneko tresnak erabiliz aukerak identifikatzeko eta beharrezko inbertsioei laguntzeko.

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

Taula honetan islatu da 2021ean industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea sustatzeko aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasuna:

Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea	Inbertsioak 2020-2024	Aurreikusitako aurrekontuak 2021 (M€)
Industria-garapena: Basque Industry 4.0, ETEentzako laguntza, reshoring eta sendotzea, krisian dauden enpresentzako laguntza, zerbitzu aurreratuak eta sormen-industriak, eta Health Cluster indartzea	1.004 M€	86 M€
Enpresentzako maileguren finantza-kostua murriztea (COVID 19)	53 M€	32 M€
Enpresak nazioartekotzea	107 M€	134 M€
Guztira	1.164 M€	252 M€

1. oharra: 2020-2024 XII. Legegintzaldirako aurreikusitako aurrekontuen datuak, 2020. urtean% 50 egotzita.

2. oharra: 2021eko aurrekontuen datuak Eusko Legebiltzarrean 2021ean onartutako aurrekontuetatik datoz.

5. politika. Elikagaien industria

NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAREN ERAKUNDE ARTEKO PLAN ESTRATEGIKOA EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA

BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA

Nekazaritza-sektorearen belaunaldi-erreleboari eta sektorea gaztetzeari laguntzea, Gaztenek bezalako programak hobetuz, enpresa-jarduerari lotuagoa dagoen eta hobeki trebatua dagoen eredu ekintzailea sustatuz.

DIBERTSIFIKAZIO EKONOMIKOA

Landa- eta itsasertzeko eremuetako dibertsifikazio ekonomikoa sustatzea, ekipamenduak, zerbitzuak eta azpiegiturak hobetzeko proiektuei lagunduz (Leader, Erein eta Itsaspen); eta potentzial-hobietan balio-kate berriak garatzen laguntzea, hala nola bioekonomia, turismoa, osasuna eta ongizatea, teknologia berriak eta abar.

Talentua landa-eremuetara erakartzeko laguntza-programa berria, horietan jarduera ekonomiko berriak sortzeko.

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ETA JASANGARRIA

Nekazaritza sektorearen trantsizio berdea bultzatzea, ekoizpen ekologikoa garatzeko laguntza berriak emanez; fitosanitarioen erregulazio berrietara egokitzea; landare eta animalien osasun kontrolak indartzea; eta elikadura osasungarria sustatzea.

LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Lehen sektorearen eta elikagaien industriaren lehiakortasuna hobetzeko ekintzak, finantza-programa eta -tresnen bidez, sektorea egituratzea eta balio-kategituraketa eta balio-katearen mailen arteko lankidetzak sustatuko dituzte masa kritikoa irabazteko, bai eta nazioartekotzea eta salmenta-bideak dibertsifikatzea ere.

Nekazaritza sektorearen lehiakortasuna hobetzeko ekintzak, honako irizpide hauen arabera: eraginkortasuna, animalien kalitatea eta ongizatea, elikagaien jasangarritasuna eta segurtasuna, eta merkaturatzeko eta tokiko produktuak sustatzeko bide laburrak sustatzea.

“Baserritik mahaira” elikagaien segurtasuna bermatzea, elikagaien trazabilitate erabatekoa lortzeko kontrol- eta ikuskapen-neurri ofizialak indartuz.

Ingurumenari eta tokiko ekoizpenari laguntzeko klausulak kontratazio publikoan sartzea.

Proiektu berritzaile eta estrategikoak bultzatzea, lurraldean ekoizpen nagusia modu jasangarrian, sozialean, ingurumenekoan eta ekonomikoan bermatuko duen elikadura-sistema propioa garatzeko.

ARRANTZARAKO EUROPAKO ITSAS FUNTSAREN PROGRAMA OPERATIBOA

BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA ETA TALENTUA ERAKARTZEA

Itsasoko langileak eta itsas eta arrantza-prestakuntzako zentron jarduera gaitzeko laguntza ematea, arrantza-sektoreko aginte-postu kualifikatuetara talentua atxikitze edo erakartzeko, Itsasoratu bezalako programen bidez.

Belaunaldien arteko erreleboa bultzatzea arrantza sektorean, gazteek enpresetan sartzea eta/edo titulartasuna beren gain hartzea sustatzeko programen bidez.

ARRANTZA JASANGARRIA

Stockak maila jasangarrietan daudela kontrolatu eta bermatzeko kudeaketa-planak ezartzen laguntzea. Legez kanpoko iruzurraren eta arrantzaren aurkako borroka areagotzea, trazabilitate-sistema hobetuen bidez.

AKUIKULTURA SUSTATZEA

Akuikulturari laguntzea, proiektu berritzaileak bultzatuz, akuikultura-parkeak eraikiz, enpresa berriak sortuz, ezagutza tekniko eta teknologia aurreratua sortuz, eta ingurumena etengabe zaintzeko sistema bat garatuz.



5. politika. Elikagaien industria aktibatzea

Taula honetan islatu da elikagaien industria aktibatzeko 2021ean aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasuna:

Elikagaien industria	Inbertsioak 2020-2024	Aurreikusitako aurrekontuak 2021 (M€)
Nekazaritza eta Landa Garapena ('from farm to fork')	385 M€	83 M€
Arrantza	100 M€	31 M€
Elikagaien sustapena eta kalitatea	128 M€	30 M€
GUZTIRA	613 M€	144 M€

1. oharra: 2020-2024 XII. Legegintzaldirako aurreikusitako aurrekontuen datuak, 2020. urtean% 50 egotzita.

2. oharra: 2021eko aurrekontuen datuak Eusko Legebiltzarrean 2021ean onartutako aurrekontuetatik datoz.

6. politika. Merkataritza eta Turismoaren eta Kulturaren Industria

MERKATARITZA. MERKATARITZA ESTRATEGIA 2030

Merkataritzaren Euskal Estrategia 2030 onartzea, bost urteko ekintza-planetan garatuko dena. 2021-2025 Merkataritza Planak sektorearen lehiakortasuna hobetzea izango du helburu, jasangarritasunaren eta digitalizazioaren, lurraldeari lotutako marka sortzearen eta bereziki saltoki txikiei arreta ematearen aldeko apustua eginez.

KUALIFIKATZEA ETA BERRITZEA

Merkataritzaren esparruan Lanbide Heziketako Zentro Aurreratua diseinatzea, profesional berriak prestatzeko, gizartearen errealitatera egokitutako negozio-ereduekin lehiatzeko behar diren gaitasunekin.

Belaunaldi-erreleboa bultzatzea, merkataritza-establezimenduen transmisioaren eta merkataritza-sektoreko ekintzailetzaren programen bidez.

DIGITALIZATZEA ETA DIBERSIFIKATZEA

Sektorearen errealitateari aurre egin eta azpisektoreek dituzten abiadurera egokituko den eraldaketa digitalerako plana abian jartzea.

Prestakuntza-plan berri bat garatzea, prestakuntza-eredu berriak eta "e-learning" plataformak bultzatuko dituen, profesionalen gaitasunak indartzeko, eraldaketa digitalarekin lotutakoak lehenetsiz.

MERKATARITZAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Merkataritzako Bulego Teknikoak finkatzea, merkataritzako lankidetzak, dinamizazio eta lehiakortasunerako estrategien arloan, dauden neurriak indartuz, hala nola Hirigune programa.

Merkataritza txikian kontsumoa sustatzeko erakunde arteko kanpaina bat abiaraztea, tokiko kontsumoa sustatzeko bonoekin, hurbileko merkataritzari eta horrek ekonomian eta enpleguan duen garrantziari balioa emateko.

MERKATARITZAREN, TURISMOAREN ETA KULTURAREN ARTEKO SINERGIAK BULTZATZEA

Merkataritza-sektoretik sortzen diren lankidetzak sinergiak bultzatzea, beste sektore batzuetako eragileekin lankidetzan eta koordinatuta, Hiria 3.1 bezalako programen bitartez.

TURISMOA ETA OSTALARITZA. TURISMO JASANGARRIRAKO EUSKAL ESTRATEGIA 2030

Turismo Jasangarriaren Euskal Estrategia 2030 onartzea, eta, horren osagarri, Turismo Jasangarriaren 2021-2025 Plan Estrategiko berria egitea. Era berean, 2021-2025 Ostalaritza Plan berria egingo da.

JASANGARRITASUNA, ERANTZUKIZUNA ETA BIKAINTRASUNA

Euskadi-Basque Country marka sustatzea, turismo-helmuga iraunkor, arduratsu eta bikaintasunari lotuta.

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoari atxikimendu gehiago egitea, turismo jarduera ikuskatu eta egiaztatzeko lanak indartzea eta turismo enpresetan berdintasun programa bat prestatzea.

LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Turismo praktika egokien sistema bat sustatzea eta destinoen aniztasunari laguntzea, haien berezitasunen arabera. Sektorearen gaitasun digitalaren diagnostikoa egitea eta euskal turismoaren adimen lehiakorreko sistema bat garatzen aurrera egitea.

Sektoreko langileak gaitzeko prestakuntza-plan bat garatzea, turismo-lanbideak profesionalizatzeko, prestigioa emateko eta babesteko, ekintzailetza sustatzeko eta errelebo profesionala egiteko estrategiarekin batera.

KULTURA INDUSTRIAK. EUSKADI SORTZAILEA

Euskal barruti sortzaile baten sorreran aurrera egitea eta kultura- eta sormen-industrien lehiakortasuna hobetzeko ekintzak garatzea, turismoarekin eta merkataritzarekin lankidetzak erraztuz, eta I+G+b ekimen bateratuak RIS3 Euskadi Estrategiaren gainerako lehentasunezko eremuekin.

6. politika. Merkataritza eta Turismoren eta Kulturaren Industria sustatzea

Taula honetan islatu da merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria suspertzeko 2021ean aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasuna:

Merkataritza eta Turismo eta Kultura Industria	Inbertsioak 2020-2024	Aurreikusitako aurrekontuak 2021 (M€)
Merkataritza	84 M€	19 M€
Turismoa eta ostalaritza	76 M€	19 M€
Kulturaren industria	153 M€	34 M€
TOTAL	313 M€	72 M €

1. oharra: 2020-2024 XII. Legegintzaldirako aurreikusitako aurrekontuen datuak, 2020. urtean% 50 egotzita.

2. oharra: 2021eko aurrekontuen datuak Eusko Legebiltzarrean 2021ean onartutako aurrekontuetatik datoz.





II. ardatza – Enplegua sortzea

Berpiztu 2021 – Aurreikusitako jarduera nagusiak eta onartutako aurrekontuak





EKINTZAILTZAREN ERAKUNDEARTEKO PLANA 2021-2024

MIKROETE ETA AUTONOMO SORTU BERRIAK

Autoenplegua sustatzea eta enpresa berriak sortzea (mikroETEak), ekintzaileentzako laguntza-programen bidez, enpresa-proiektuaren ideia garatzeko eta abian jartzeko, prozesuaren fase guztietan lagunduz, finkatu arte. Programa horietan sartzen dira, besteak beste, laguntza ekonomikoak, adituen aholkularitza eta mentoring zerbitzuak eta langabeziaren kapitalizazioa.

Enplegua eta enpresa-jarduera sustatzen duten beste toki erakunde eta entitateekin lankidetzan aritzea, ekintzaileei laguntzeko programak zabaltzeko, hala nola Dema eta Gaztenpresa programak.

NAZIOARTEKO START-UP-AK ERAKARTZEA

Ekimenak garatzea euskal enpresen eta mundu osoko startupen arteko elkarrekintza sustatzeko, berrikuntza-proiektuen garapena erraztuz eta Euskadin hazkunde-ahalmen handiko enpresa berritzaileak ezartzea sustatuz. Nabarmentzekoa da Bind 4.0 berrikuntza-plataforma irekia, programaren seigarren edizioa abian jarrita.

ENPRESA PROIEKTU BERRIAK

Oinarri teknologikoko proiektu berritzaileak abian jartzen laguntzea industria-enpresa txiki eta ertainetan, enplegua sortzeko inbertsioekin, Gauzatu Berria bezalako programen bidez.

Barne-ekintzailtzaren bidez enpresa baten barruan sortutako proiektu berriak garatzen laguntzea, euskal enpresen barne-ekintzailtzako potentziala baliatu ahal izateko, Barnekintzaile bezalako programen bidez.

ENPRESA BERRITZAILERIAK

ETE teknologiko eta berritzaile berriak sortzen laguntzea, kalitatezko enplegua sortzen laguntzeko, programa eta zerbitzu hauen bidez: laguntza ekonomikoak eta finantzarioak (Ekintzaile programa, adibidez); aholkularitza eta laguntza BICen bidez (enpresa-berrikuntzako zentroak); aholkularitza, mentoring eta coaching zerbitzuak; eta nazioarteko merkatuetan sartzeko laguntzak.

ETE BERRIAK LEHEN SEKTOREAN, GIZARTE EKONOMIAN, MERKATARITZAN ETA TURISMOAN

Enplegua sortzeko potentziala duten sektoreetan enpresa berriak sortzen laguntzea, programa espezifikoaren bidez:

- Landa-ingurunean eta itsasertzean jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen laguntzea, Leader, Ererin Gaztenek eta Geroa bezalako programen bidez, dibertsifikazio-jarduerak, enpresa berrien sorrera eta dauden enpresak handitzeko eta modernizatzeko inbertsioak sustatuz.
- Gizarte-ekonomiako enpresak eratzeko laguntza integraleko programa, ekintzaileei aholkuak eta laguntza emanez proiektuaren bideragarritasuna zehaztu eta aztertzeko eta, ondoren, abiaraztearen jarraipena egiteko, enpresen jarraitutasunari eusteko.
- Merkataritzan eta turismoan ekintzailtza bultzatzea, turismo jasangarriari eta tokiko kontsumoari lotutako enpresen sorrera eta/edo jarraitutasuna babestuz.

7. politika. Ekintzailletza. Enpresa berriak

Taula honetan zehaztu dira 2021ean aurreikusitako aurrekontu-inbertsioak eta ekintzailletzaren esparruan enplegua sustatzeari egindako ekarpen zenbatetsia:

Ekintzailletza. Enpresa berriak	Aurreikuspena 2020-2024		Aurreikuspena 2021	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
MicroETE eta autonomoak	26 M€	4.565	5 M€	770
Elikagaien sektoreko enpresa berriak	13 M€	1.245	2 M€	210
Gizarte Ekonomiako enpresa berriak	6 M€	747	1 M€	126
Turismo eta Merkataritza sektoreko enpresa berriak	8 M€	913	4 M€	154
Enpresa berritzaile berriak	175 M€	3.320	15 M€	560
GUZTIRA	128 M€	10.90	27 M€	1.820

1. oharra: 2020-2024 XII. legegintzaldirako aurreikusitako aurrekontuen datuak, 2020. urtean % 50 egotzita.

2. oharra: Enplegua Sortzea izeneko II. ardatzerako 2021eko aurrekontuen datuak Gobernuaren 2021eko aurrekontuaren "210. Txostena - Enplegu Plana" delakoan daude oinarrituta, eta horri Renove Osasuna programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua gehitu zaio. 2021ean sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenari dagokio.

8. politika. Enplegurako prestakuntza

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

LANGABEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Enplegurako Lanbide Heziketaren esparruan prestakuntza-ekintzak garatzea, batez ere langabeen birkualifikazioa errazteko, lan-merkatuak eskatzen dituen kualifikazioekin eta gaitasunekin bat etorri.

Bi urteko deialdia egitea, akordioak gauzatzea eta kudeaketa-gomendioari buruzko akordioak betearaztea Hezkuntza Sailarekin, ekintza orokorrak edo arruntak egiteko.

KONTRATAZIO-KONPROMISODUN PRESTAKUNTZA

Berariazko prestakuntza ekintzak garatzea, enpresetan benetan sartzeko berariazko kualifikazio osagarria behar duten profil okupazionalen behar zehatzak asetzeko. Ekintza horiek prestakuntzadun pertsonen gutxienez %50 kontratatzeke konpromisoa dakarte berekin. Urteko deialdia egitea.

NEKAZARITZA ETA ARRANTZAKO TREBAKUNTZA

Nekazaritarako eta arrantzarako (elikatze-katea) trebatzeko prestakuntza-ekintzak garatzea langabeentzat eta landunentzat Enplegurako Prestakuntzaren esparruan. Bi urteko deialdia egitea eta HAZIrekin kudeaketa-gomendiorako akordioak gauzatzea.

LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA

Prestakuntza-ekintza sektorialak eta zeharkakoak garatzea Enplegurako Prestakuntzaren esparruan, landunen gaitasunak eta kualifikazioak ekoizpen-ingurunean gertatzen diren aldaketetara egokitzeko. Bi urteko deialdia egitea, akordioak betearaztea eta kudeaketa-gomendioari buruzko akordioak betearaztea.

Enpresek garatutako prestakuntza-ekintza estrategikoak garatzea, hala nola prestakuntza hobaridunaren kreditua agortu duten enpresetako langileentzako prestakuntza espezifikoa.

Lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzako bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-gaitasunen egiaztapena indartzea, ebaluatzeke eta egiaztatzeke prozedurarako deialdien bidez.

LAN-ORIENTAZIOA

Enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzea, prestakuntza laneratzeko ibilbide integralak diseinatzeko prozesuaren zati gisa lotuz, enplegutik urrunen dauden pertsonen artean berezia eskainiz.

Ibilbide pertsonalizatuak diseinatzea, erabiltzailearekin batera jarraipen plan pertsonala definituz. Ibilbide horiek hedadura integrala izango dute, eta, besteak beste, pertsonaren profila diagnostikatu eta aztertuko dute, ibilbide pertsonalizatu bat diseinatuko dute eta ibilbide hori garatzen lagunduko dute, enpresekin bitartekari-lanak egingo dituzte eta, ondoren, lanean txertatzeko jarraipena egingo dute.



8. politika. Enplegurako prestakuntza

Taula honetan zehaztu dira 2021ean aurreikusitako aurrekontu-inbertsioak eta enplegurako prestakuntzaren esparruan enplegua sustatzeari egindako ekarpen zenbatetsia:

Enplegurako prestakuntza	Aurreikuspena 2020-2024		Aurreikuspena 2021	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Lan-orientazioko programak	35 M€	16.600	8 M€	2.800
Nekazaritza eta arrantzarako trebakuntza programak (elikadura-katea)	3 M€	519	0,3 M€	88
Kontratazio-konpromisodun prestakuntza	14 M€	1.245	2 M€	210
Langabeak laneratzeko prestakuntza	222 M€	23.736	46 M€	4.004
Landunak birziklatzeko prestakuntza	68 M€	*	19 M€	*
GUZTIRA	342 M€	42.100	75 M€	7.102

(*) Birziklatze-programek egonkortasun eta kalitate handiagoa dute enpleguan, baina zuhurtasun-hipotesiengatik ez da aurreikusten enplegua zuzenean sortzea.

1. oharra: 2020-2024 XII. legegintzaldirako aurreikusitako aurrekontuen datuak, 2020. urtean % 50 egotzita.

2. oharra: Enplegua Sortzea izeneko II. ardatzerako 2021eko aurrekontuen datuak Gobernuaren 2021eko aurrekontuaren "210. Txostena - Enplegu Plana" delakoan daude oinarrituta, eta horri Renove Osasuna programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua gehitu zaio. 2021ean sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenari dagokio

TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK

Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzak programaren urteko deialdia. Programa horren helburua da enplegarritasuna hobetzea eta langabeen kontratazioa sustatzea, tokiko erakundeek enplegua sustatzeko jarduerak garatuz, tokiko enpresek kontrataziorako pizgarriak emanez eta tokiko enpresa-proiektu estrategikoak garatuz.

Eremu eta udalerrri behartsuetan eta/edo lehentasunezko jarduketaremuetan (Meatzaldea, Ezkerraldea, Oarsoaldea eta Enkarterri) berariazko ekintzak garatzea.

BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK LANERATZEA ETA LANERATZEKO ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK

"Proiektu berezien" programa garatzea, prestakuntza-ekintzak, esperientzia praktikoa, laneratzen laguntzea, orientazioa, banakako laguntza eta enplegarritasuna eta laneratzea hobetzeko beste neurri batzuk uztartzen dituzten proiektuak babesteko. Proiektu horiek gizarteratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen eta behar espezifikoak dituzten landunei zuzenduta egongo dira, lan-merkatuan sartzeko eta, ondoren, jarraitzeko aukera bermatzeko.

Laneratzeoko enpresen jarduerari laguntzea bazterkeria-egoeran dauden pertsonak lan-merkatuan sartzen laguntzeko, laguntzan oinarritutako gizarteratze- eta laneratze-prozesu baten bidez.

LUZAROKO LANGABEAK KONTRATATZEA

Kolektibo behartsuenak (luzaroko langabeak, 45 urtetik gorakoak, emakumeak, mendeko pertsonak ...) enpresek kontrata ditzaten erraztea, lan-merkatuan sartzen laguntzeko neurri gisa, kontratazioa sustatzeko berariazko programen bidez.

ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK

Enplegu-zentro berezien jarduerari laguntzea, desgaitasuna eta lan-munduan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen lanpostuei eusten laguntzeko tresna gisa. Laguntza horien jarduerari eta laguntza-unitateei eusteko da.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK KONTRATATZEA

Desgaitasuna duten pertsonen enpresa arruntetan kontratu mugagabeak egiteko laguntzen urteko programa, lanpostuak haien baldintza fisiko, psikiko eta intelektualetara egokitzea erraztuz.

Zailtasun eta desgaitasun-maila handienak dituzten pertsonen aldi baterako kontratazioa sustatzea, enpresentzako euskarri teknikoa barne.

Enplegu lagunduko unitateak sustatzeko programa. Horren bidez, desgaitasuna duten pertsonen lan-prestatazaileak dituzte, merkatu arruntan enplegua lortzen eta finkatzen laguntzeko.

LANA ETA FAMILIA BATERAGARRI EGITEKO PERTSONAK ORDEZKATZEKO KONTRATAZIOA

Lana eta familia bateragarri egitea sustatzeko urteko programa, enpresei zuzendutako laguntza emanez, langabeen kontratazioa sustatzeko edo enplegatuen lanaldia luzatzeko, betiere familia eta lana bateragarri egiteko xedez eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak ordezteko helburua badute.

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

Taula honetan zehaztu dira 2021ean aurreikusitako aurrekontu-inbertsioak eta laneratzearen esparruan enplegua sustatzeari egindako ekarpen zenbatetsia:

Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	Aurreikuspena 2020-2024		Aurreikuspena 2021	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Tokiko eta eskualdeko enplegu planak	174 M€	14.525	36 M€	2.450
Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzea	18 M€	1.245	4 M€	210
Luzaroko langabeak kontratatzea, horiek sektore pribatuan kontratatzeko laguntzen bitartez	6 M€	518	2 M€	88
Enpresetan laneratzeko berariazko programak	58 M€	3.182	10 M€	536
Ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzea enpresetan (kontratazio mugagaberako laguntzak + laguntza bidezko enplegua)	8 M€	830	2 M€	140
Enplegu-zentro bereziak	258 M€	*	60 M€	*
Laneratze-enpresentzako laguntzak	45 M€	*	10 M€	*
Lana eta familia erantzukidetasunez uztartzeak eragindako enplegua	10 M€	5.810	2 M€	980
TOTAL	577 M€	26.110	126 M€	4.404

(*) Programa horiek ezgaitasuna duten eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enpleguaren egonkortasuna bermatzen dute, baina zuhurtziagatik, lanpostu berriak nabarmen sortzen ez dituztela hartu da kontuan.

1. oharra: 2020-2024 XII. legegintzaldirako aurreikusitako aurrekontuen datuak, 2020. urtean % 50 egotzita.

2. oharra: Enplegua Sortzea izeneko II. ardatzerako 2021eko aurrekontuen datuak Gobernuaren 2021eko aurrekontuaren "210. Txostena - Enplegu Plana" delakoan daude oinarrituta, eta horri Renove Osasuna programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua gehitu zaio. 2021ean sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenari dagokio.



ERAIKUNTZAKO RENOVE PROGRAMAK

Birgaitzearen aldeko apustuak eragin handia du, bai enplegua sortzeari dagokionez, bai ingurumenari eta gizarteari dagokionez. Horrela, eraikitako parkea berritzeko eta birgaitzeko programa berrien garapena bultzatzea, eraginkortasun energetikoko irizpideekin eta isurpenik gabeko eraikinetarantz aurrera egitea bilatuz, suspertze ekonomikoaren eta jasagarritasunaren motor garrantzitsua da oraindik ere. Eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzea erabakigarria izango da Europako Itun Berdean eta Eusko Jaurlaritzaren Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenean 2050erako ezarritako karbono-isurien neutraltasuna lortzeko. Gainera, aukera argia dira birgaitzearen eta eraikuntzaren sektorean jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta euskal ekonomian lanpostu berde berriak sortzeko, Europako Batzordeak Kobid-19k sortutako egungo krisialditik irteteko ezarritako lehentasunekin bat etorriz.

Testuinguru horretan, etxebizitza, ikastetxe publiko eta osasun zentro publikoetako errehabilitazio programei lagunduko zaie urtero aurrerantzean ere:

RENOVE Etxebizitza: enplegua sortzea eta/edo finkatzea etxebizitzak birgaitzeko azpisektorean, eta, aldi berean, etxebizitzaren kontserbazio-, irisgarritasun- eta efizientzia energetikoko baldintzak hobetzea.

RENOVE Ikastetxeak: enplegua sortzea eta/edo sendotzea birgaikuntzaren azpisektorean, ikastetxe publikoak birgaitzeko eta hobetzeko obren bidez.

RENOVE Osasun Zentroak: enplegua sortzea eta/edo sendotzea birgaikuntzaren azpisektorean, osasun-zentro eta - ekipamendu publikoak birgaitzeko eta hobetzeko obren bidez.

10. politika. Renove programa. Eraikuntzaren birgaikuntza

Taula honetan zehaztu dira 2021ean aurreikusitako aurrekontu-inbertsioak eta Renove – Eraikuntza Birgaitzea programen esparruan enplegua sustatzeko egindako ekarpen zenbatetsia:

Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza	Aurreikuspena 2020-2024		Aurreikuspena 2021	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Renove Etxebizitzak	143 M€	10.269	31 M€	1.732
Renove Ikastetxeak	209 M€	3.752	44 M€	633
Renove Osasun Zentroak	54 M€	979	12 M€	165
GUZTIRA	406 M€	15.000	87 M€	2.530

1. oharra: 2020-2024 XII. legegintzaldirako aurreikusitako aurrekontuen datuak, 2020. urtean % 50 egotzita.

2. oharra: Enplegua Sortzea izeneko II. ardatzerako 2021eko aurrekontuen datuak Gobernuaren 2021eko aurrekontuaren "210. Txostena - Enplegu Plana" delakoan daude oinarrituta, eta horri Renove Osasuna programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua gehitu zaio. 2021ean sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenari dagokio.

ENPLEGU PUBLIKOA

Enplegu publikoaren sektorea enplegu-emaile eraginkor eta efiziente gisa finkatzeak, kalitatezko enplegua sortzea eta hobetzea sustatzeko, erronka izaten jarraitzen du administrazio publikoarentzat. Horretarako, belaunaldien arteko erreleboaren plangintza egokia bultzatzen jarraituko da, erakundeen barruan ezagutza mantenduko dela bermatuz, eta enplegu publikoari lehentasuna emango zaio gizarte-politikekin (osasuna eta hezkuntza, esaterako), funtsezko zerbitzuekin (segurtasuna, adibidez) eta zerbitzu orokorren beste esparru batzuekin lotutako eremuetan.

Testuinguru horretan, urtero lan-eskaintza publikoak egitea bultzatuko da, txanda irekiko eta barne-sustapeneko lanpostuak betetzeko, batez ere osasunaren, hezkuntzaren, segurtasunaren, justiziaren eta administrazio orokorraren eremuei lotuta.

11. politika. Enplegu publikoaren eskaintzak

Taula honetan zehaztu dira 2021ean aurreikusitako aurrekontu-inbertsioak eta enplegu publikoaren esparruan enplegua sustatzeko egindako ekarpen zenbatetsia:

Enplegu publikoaren eskaintzak	Aurreikuspena 2020-2024		Aurreikuspena 2021	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak
Administrazio orokorra	*	1.150	*	800
Osasuna	*	4.100	*	800
Ertzaintza	*	1.900	*	300
Hezkuntza	*	3.100	*	600
Justizia	*	320	*	100
Beste batzuk	*	150	*	25
GUZTIRA	*	10.720	*	2.625

(*) Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapituluko Orokorrean (Langileak) sartuta dagoelako.

1. oharra: 2020-2024 XII. legegintzaldirako aurreikusitako aurrekontuen datuak, 2020. urtean % 50 egotzita.

2. oharra: Enplegua Sortzea izeneko II. ardatzerako 2021eko aurrekontuen datuak Gobernuaren 2021eko aurrekontuaren "210. Txostena - Enplegu Plana" delakoan daude oinarrituta, eta horri Renove Osasuna programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua gehitu zaio. 2021ean sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenari dagokio.

12. politika. Talka-plana. Gazteen enplegua

LANBIDE ETA UNIBERTSITATE HEZIKETA DUALA

Prestakuntza dualaren eredua unibertsitate-eremuan eta lanbide-heziketan sar dadin bultzatzen jarraitzea, gaitasunen garapena eta lanbide-eremuetara egokitzea bizkortzeko bide gisa. Helburua da ikasleen prestakuntza indartzea eta haien enplegarritasuna hobetzea, prestakuntza dualaren eredua lanbide-zikloetara (erdi- eta goi-mailako graduak) eta unibertsitateko gradu eta masterretara zabalduz, eta ikastetxeen eta enpresen parte-hartzea sustatuz.

GAZTEEN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-BEKAK

Beken eta talentu gaztearen programak indartzea, tituludun gazteek euskal enpresentzat interesgarriak diren arloetan duten prestakuntza eta kualifikazioa hobetzeko. Horretarako, esperientzia praktikoa jasoko dute nazioartekotzean, ingurune zientifiko-teknologikoan edo nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektorean.

LEHEN AUKERA

Promoción del programa de ayudas para facilitar una primera oportunidad laboral a las personas jóvenes, a través de la contratación por empresas en empleos relacionados con su titulación. Mejora del programa reforzando su atractivo para las empresas y revisando las cuantías de las subvenciones y las remuneraciones a las y los jóvenes.

ERRELEBO-KONTRATUA

Enpresetako plantillak berritu eta gaztetzea bultzatzea, gazteen errelebo-kontratuak, lanaldi osokoak edo mugagabeak, lagunduz. Horren osagarri, programak 45 urtetik gorakoentzako ildo espezifiko bat jasotzen du.

GAZTEEN EKINTZAILTZA

Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleen artean ekintzailtzaren kultura bultzatzen jarraitzea, ekintzailtza-esperientzia praktikoa sustatuz eta ekintzaileari hasierako ideiatik enpresa berria sortu arte lagunduz (hala nola Urrats Bat programa Lanbide Heziketako ikastetxeetan). Gazteen presentzia indartzea mikroETeen eta/edo autonomoen ekintzailtza-programetan.

HEZKUNTZA-MUNDUTIK LAN-MUNDURA IGAORTZEKO PROGRAMAK

Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio-programak indartzea, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin lankidetzan, gazteen ezagutzak, trebetasun teknikoak eta trebetasunak handituko dituen esperientzia praktikoa erraztuz eta enpresen benetako beharretara hobeto egokituz.

GAZTEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Gazteen enplegurako prestakuntza-ekintzak bultzatzea eta kualifikazio txikiko gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko berariazko prestakuntza-ekintzak garatzea, enpresen eskarietara hobeto egokitzeko eta haiei hobeto erantzuteko.

GAZTEEN ITZULERA

Gazteen itzulerari laguntzeko programa indartzea, azken 6 hilabeteetan gutxienez Euskaditik kanpo bizi ondoren itzuli nahi duten gazteak euskal lan-merkatuan sartzen laguntzeko.

GAZTEAK GIZARTERATZEKO EKINTZA BERRITZAILEAK

Lehen lan-aukera bilatzen ari diren gazte tituludunen enplegarritasuna handitzeko jarduerak garatzea. Ekintza horien artean sar daitezke harrerarako eta enplegarritasunaren diagnostikorako jarduerak, profesionalek, mentoreek eta abarrek banakako planak diseinatzea, eta zehaztutako gizarteratzeko plan pertsonala gauzatzen laguntzea eta haren jarraipena egitea.

12. politika. Talka-plana. Gazteen enplegua

Taula honetan zehaztu dira 2021ean aurreikusitako aurrekontu-inbertsioak eta gazteen enpleguarekiko konpromisoaren esparruan enplegua sustatzeari egindako ekarpen zenbatetsia:

Talka-plana. Gazteen enplegua	Aurreikuspena 2020-2024		Aurreikuspena 2021	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Enplegurako prestakuntza duala	*	11.990	*	2.023
Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak	14 M€	3.280	3 M€	553
Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak	42 M€	1.936	6 M€	327
Gazteak laneratzeko prestakuntzaa	18 M€	2.728	4 M€	460
Gazteen enplegurako programak: Lehen Aukera, Errelebo-kontratua, Gazteen Itzulera eta gazteak laneratzeko ekintza berritzaileak	65 M€	4.150	12 M€	700
Gazteen ekintzailletza	23 M€	1.716	5 M€	289
GUZTIRA	162 M€	25.800	30 M€	4.352

(*) Aurrekontua ez da sartu, LHko eta Unibertsitateko langileen gastuen kapituluan sartuta dagoelako.

1. oharra: 2020-2024 XII. legegintzaldirako aurreikusitako aurrekontuen datuak, 2020. urtean % 50 egotzita.

2. oharra: Enplegua Sortzea izeneko II. ardatzerako 2021eko aurrekontuen datuak Gobernuaren 2021eko aurrekontuaren "210. Txostena - Enplegu Plana" delakoan daude oinarrituta, eta horri Renove Osasuna programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua gehitu zaio. 2021ean sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenari dagokio.